

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

1891

AGINDUA, 2025eko apirilaren 15ekoa, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuarena, baliogabe uzteko Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren 2023ko azaroaren 13ko Agindua, behin betiko ebatzi zuena Justizia Administrazio Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetako lanpostu berezitu-tuetarako berariazko lehiaketa.

Aztertu dugu Administrazioarekiko Auzien Vitoria-Gasteizko 1 Epaitegiak 0056/2024 prozedura laburtuan emandako 00067/2025 zenbakiko epai irmoa, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 104.1 artikulua ezarritakoaren arabera, honakoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Xedea.

Indarrik gabe uztea eta ezestea Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren 2023ko azaroaren 13ko Agindua, behin betiko ebatzi zuena Justizia Administrazio Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetako lanpostu berezitu-tuetarako berariazko lehiaketa.

Bigarrena.— Jarduketak, atzera ere, baliogabetutako Agindua eman aurreko unera eramatea.

Hirugarrena.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bietan aldi berean argitaratzea lortzen ez bada, epeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 15a.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua,
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.